

# NATURAREN ZIENTZIAK

## EBALUAZIO ADIERAZLEAK

- Zentzumenen organoak zuzenean behatu, adierazi eta deskribatu egiten ditu.
- Badaki zein diren norberaren higienarako, zaintzarako eta atsedenerako oinarrizko ohiturak eta jarraitu egiten ditu.
- Badaki zein diren dieta orekatuarekin lotutako ohiturak eta jarraitu egiten ditu
- Izaki bizidunak eta materia bizigabea bereizteko eta sailkatzeko irizpide zientifiko errazak erabiltzen ditu.
- Izaki bizidunekiko interesa azaltzen du eta errespetatu eta zaindu egiten ditu.
- Badaki zer propietate dituzten maiz erabiltzen ditugun objektu eta materialek: kolorea, usaina, pisua, forma...
- Makinen eta tresnen aplikazioen bat ikusi eta bereizten du.

## EDUKIAK

**Naturaren-zientzien proiektua edo erronkak egitea, modu gidatuan, metodologia zientifikoa eta haren oinarrizko ezaugarriak fenomeno naturalak eta benetako egoerak aztertze, identifikatzeko eta ebazteko aplikatzeko irizpideak eta jarraibideak erabiltzen hastean.**

**Proiektua edo erronkak gai horietako bati buruzkoa izango litzateke.**

### GIZAKIA ETA OSASUNA

- Zentzumenen organoak.
- Dieta orekatua eta elikadura-ohitura osasungarriak
- Norberaren higienarako, zaintzeko eta atsedenerako oinarrizko ohiturak.

### IZAKI BIZIDUNAK

- Izaki bizidunak: animalien eta landareen arteko desberdintasunak identifikatzea.
- Landareen egitura eta elementu behagarrien araberako sailkapena.
- Animalien ezaugarriak eta bizimodua.
- Izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak.

### MATERIA ETA ENERGIA

- Zenbait objektu eta material alderatzeko, sailkatzeko eta ordenatzeko irizpideak, propietate fisiko hautemangarriari erreparaturaz (esate baterako: pisua, bolumena, kolorea, testura, usaina, forma,).

### TEKNOLOGIA, OBJETUAK ETA MAKINAK

- Pertsonen bizitza errazten duten makinak eta aparatuak.

## LH 1 NATURAREN ZIENTZIAK

Etapako helburuak eta arloa ebaluatzeko irizpideak garatzeko funtsezko jarduerak

### IKERKETA DOKUMENTALA

- **Jarduera / Ataza:** Ikerketa txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
  - 1-Galdera edo ikerketaren gaia erabaki eta aurrezagutzak adierazi
  - 2-Gidoia bati jarraituz, informazioa bilatu eta gorde.
  - 3-Ikerketa egin: informazioa hautatu eta euskarri bisualean antolatu (antolatzaile grafikoak).
  - 4-Ahozko sintesia egin ideia nagusiekin eta ondorioak atera.
  - 5-Komunikazioa (ahoz, nagusiki) euskarri analogikoa eta digitala erabiliz.Adibidea: [Zein da azukre gehiago duen edaria?](#)
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** animalien eta landareen sailkapen grafikoak, Natura zaintzeko dekalogoak, elikagaien ikerketaren txostena, hostoen bilduma, landareen eta animalien fitxa bilduma (fitxategia argazkiekin, mural birtualak), makinaren denbora lerroa...
- **Gaien adibideak:** zentrumen organuak, elikadura osasuntsua, higie eta atsedeen ohiturak, izaki bizidunak eta bizigabeak, landareen egitura eta sailkapena, animalien ezaugarriak eta bizimoduak, izaki bizidunak errespetua, makinaren aplikazioa bizitzan ...

### IKERKETA ESPERIMENTALA

- **Jarduera / Ataza:** Ikerketa esperimental txikia egingo dute ikasleek. Prozesua:
  - 1-Gairi buruz aurrezagutzak adierazi.
  - 2-Planifikazioa: hipotesiak egin eta esperimentuaren aldagaiak, urratsak eta datuak erregistratzeko moduak erabaki.
  - 3-Esperimentua egin eta datuak jaso.
  - 4-Analisia egin eta emaitzak aztertu.
  - 5-Hipotesia egiaztatu, konklusioak atera eta komunikatu (analogikoa eta digitala: poster, txostena...).Adibidea: [Zergatik egiten digu negar tipulak ebakitzen dugunean?](#), [Ur-iragazkia](#), [Esku nazkagarriak](#), [Nolako da barraskiloen bizimodua?](#), [Gurekin busti zaitez](#),
- **Prozesuzko jarduerak eta produktuak:** [behaketa](#) gidatuaren kontrol orria, materialen propietateen inguruko sailkapen txostena, datuen grafikoak eta taulak, zentzumenen esperimentuen dossierra, prozesuaren bideo grabaketa, landare hazkundearen inguruko esperimentazio-prozesuaren panela...
- **Gaien adibideak:** Zenbait objektu eta material alderatzeko, sailkatzeko eta ordenatzeko irizpideak, propietate fisiko hautemangarriei erreparatuz (esate baterako: pisua, bolumena, kolorea, testura, usaina, forma), landareen mugimendua, landareen hazkundera, [zentzumenen inguruko esperimentuak](#)...